



# KIDEGOEN ETA ESKALEN LEGEAREN KIDEGO ETA ESKALA BERRIETAN INTEGRATZEKO PROZESUARI BURUZKO OHIKO GALDERAK.

## AURKIBIDEA

1. Zergatik integratu funtzionarioak lege berriaren kidego eta eskaletan? .....	3
2. Nola arautuko da kidego eta eskala berrietan integratzeko prozesua? .....	3
3. Nola jakin dezaket zer kidegotakoa naizen? .....	3
.....	4
4. Nola integratuko dira B eta C taldeetako eta talde profesionaletako langileak kidego eta eskala berrietara? .....	4
5. Administrari laguntzaileen kidegokoa naiz, eta kidego horretakoa bakarrik, baina administrari orokorraren lanpostu baten titularra naiz edo aspalditik ari naiz lanpostu horretan. Integratu naiteke Administrarien Eskalan? .....	6
6. Administrarien kidegokoa naiz, eta kidego horretakoa bakarrik, baina A taldeko teknikarien lanpostu baten titularra naiz edo aspalditik ari naiz horrelako lanpostu batean. Integratu naiteke A taldeko eskala batean? .....	6
7. A taldeko kidego batekoa naiz. Nola integratuko gara kidego eta eskala berrietan? 6	
8. Nork har dezake parte integrazio-prozeduran? .....	6
9. Zer integrazio-proposamen jasoko dut? .....	7
10. Zer esperientzia hartuko da kontuan? .....	7
11. Karrerako funtzionarioa naiz. Alda dezaket Administrazioak egin didan integrazio-proposamena? .....	8
12. Karrerako funtzionarioa naiz. Zenbat kidego/eskalatan integra naiteke? .....	8
13. Bitarteko funtzionarioa naiz. Alda dezaket Administrazioak egin didan integrazio-proposamena? .....	9
14. Bitarteko funtzionarioa naiz. Zenbat kidego/eskalatan integra naiteke? .....	9
15. Bitarteko funtzionarioa naiz. Nola eragingo dit integrazioak egitekoa den egonkortze EPEan? .....	9
16. Ez nago ados Funtzio Publikoko Zuzendaritzak eskaintzen dizkidan integrazio- aukerekin. ....	10
17. Kidego eta eskala berrietan integratzeko prozesua .....	10
18. Integra naiteke betetzen ari naizen lanpostura gaur egun irekita ez dagoen eskala batean? .....	12

19. Nola eragiten die integrazioak zerbitzu-eginkizunen prozesuei? ..... 13
20. Zer da lehentasunezko eskala?..... 13
21. Nola kontsulta ditzaket nire egoera partikularri buruzko zalantzak?..... 13
22. Kidegoen eta eskalen arteko korrespondentziei buruzko eranskina ..... 14

## 1. Zergatik integratu funtzionarioak lege berriaren kidego eta eskaletan?

Kidegoei eta eskalei buruzko lege berriak (11/2021 Legea, azaroaren 11koa, *Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari buruzko kidegoei eta eskalei buruzkoa* <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/11/2105909a.pdf>) aldatu egiten ditu EAEko Administrazio Orokorreko funtzionarioak sailkatzeko kidegoak eta eskalak. Kidegoek eta eskalek funtzionarioak eginkizun eta ezagutza komunen inguruan sailkatzeko, ordenatzeko eta taldekatzeko balio dute. Funtsezko elementuak dira hautaketa- eta hornikuntza-sistemarako.

Kidego eta eskala berrietan integratzeak eta Lanpostuen Zerrenda berrian lanpostu bakoitza zein kidego eta eskalari atxikiko zaion zehazteak funtzionarioaren etorkizuneko karrera finkatuko dute.

Integrazio-prozesu horrek **7/2021 Legean arautzen diren kidego/aukera/eskalei soilik eragingo die, eta ez, beraz, Administrazio Orokorrean jardunean dauden beste administrazio publiko batzuetako karrerako funtzionarioei, irakasleei, osasun-langileei edo lan-kontratudun finkoei, edo prozesu honen aurretik Administrazio Orokorreko kidego/aukera/eskaletan sartuta ez dauden langileei.**

## 2. Nola arautuko da kidego eta eskala berrietan integratzeko prozesua?

Kidegoei eta Eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen 18. eta 19. artikuluek funtzionarioek zer irizpide bete behar dituzten ezartzen dute, sortzen diren kidegoetan eta eskaletan integratzeko.


Halaber, Funtzio Publikoko sailburuordearen 2022ko maiatzaren 13ko Ebazpenaren bidez garatuko da kidegoen legean integrazio-prozesuari buruz ezarritakoa.

**A taldeko kidegoetako langileek hartu dezakete parte sartu behar diren kidegoa eta eskala aukeratzeko deitutako prozesuan.**

**Beste taldeetako gainerako kidegoetako langileak ofizioz integratuko dira, aipatutako ebazpenean jasotako aurreikuspenen eta ondoko atal honetan jasotakoaren arabera.**

## 3. Nola jakin dezaket zer kidegotakoa naizen?

**Enpleguaren atarian**, EIZUn, ezkerrean dagoen menu zabalgarritik **datu profesionaletara** sartuz, leiho bat zalduko zaizu zein kidego/aukera/eskalatakoa zaren adieraziko duena.



#### 4. Nola integratuko dira B eta C taldeetako eta talde profesionaletako langileak kidego eta eskala berrietara?

Automatikoki integratuko dira. Horrenbestez, kidego horietakoren batekoa bazara, ez duzu prozesuan parte hartzeko komunikaziorik jasoko, eta A taldeko langileentzat araututako prozesua amaitu ondoren jakinaraziko dizute dagokion kidego eta eskalan integratu zaituztela.

A)Kidego hauetakoren batean izendatutako karrerako funtzionarioa edo jardunean edo antzeko egoeran dagoen bitarteko funtzionarioa bazara, ofizioz eskala hauetan integratuko zaituzte:

Jatorrizko kidegoa	Egungo eskala
Mendekoa	Laguntzako Langileen Talde Profesionala
Administrari Laguntzaileen Kidegoa	Administrari Laguntzaileen Eskala
Administrarien Kidegoa	Administrarien Eskala

**Era berean, Zuzenean aritzeko lanposturako lan-poltsetatik Zuzenean zerbitzuko agente gisa izendatutako bitarteko langileak, Administrarien Eskalan integratuko dira automatikoki.**

B)Laguntzaile Teknikoen Kidegoko aukera hauetakoren batean izendatutako karrerako funtzionarioa edo jardunean edo antzeko egoeran dagoen bitarteko funtzionarioa bazara, B taldeko eskala hauetan integratuko zaituzte:

Integrazio automatiko hori Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateginaren aurreikuspenetatik dator; izan ere, 76. artikuluan kidegoen eta eskalen sailkapen berri bat ezartzen du, sartzeko titulazioaren arabera. Horrela, goi-mailako teknikariaren titulua izatea eskatzen den lanpostuetan ari diren pertsonak, hain zuzen ere C2 kidego zaharreko kide direnak, B taldeko kidego edo eskaletan sartuko dira.

Jatorrizko kidegoa/aukera	Egungo eskala
Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Aukera: Itsas nabigazio, arrantza eta garraioko goi-mailako teknikaria	Laguntzaile Teknikoen Kidegoa / Arrantzako Eskala
Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Aukera: Itsasontziko makinak eta instalazioak ikuskatu eta kontrolatzeko goi-mailako teknikaria	
Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Aukera: Nekazaritza eta abeltzaintzako enpresen kudeaketa eta antolamenduko goi-mailako teknikaria	Laguntzaile Teknikoen Kidegoa / Hazien Eskala
Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Aukera: Natura- eta paisaia-baliabideen kudeaketa eta antolamenduko goi-mailako teknikaria	
Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Aukera: Elikagaien industriako goi-mailako teknikaria	
Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Laborategiko Eskala	Laguntzaile Teknikoen Kidegoa / Laborategiko eta Osasun eta Ingurumen Ikuskaritzako Eskala
Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Aukera: Kimika industrialeko goi-mailako teknikaria	
Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Aukera: Diagnosi klinikoko laborategiko goi mailako teknikaria	
Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Aukera: Analisisiko eta kalitate kontroleko laborategiko goi-mailako teknikaria	
Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Aukera: Ingurumen-osasuneko goi-mailako teknikaria	
Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Aukera: Fabrikazio mekanikoko diseinuko goi-mailako teknikaria	Laguntzaile Teknikoen Kidegoa / Obren eta Instalazioen Delineazioko Eskala
Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Aukera: Hirigintza-proiektuen eta topografia-lanen garapeneko goi-mailako teknikaria	
Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Aukera: Eraikuntza-proiektuen garapeneko eta aplikazioko goi-mailako teknikaria	
Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Aukera: Obren planak gauzatzeko goi-mailako teknikaria	
Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Aukera: Aplikazio informatikoak garatzeko goi-mailako teknikaria	Laguntzaile Teknikoen Kidegoa / Kudeaketa Informatikako Eskala
Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Aukera: Sistema informatikoen administrazioko goi-mailako teknikaria	

## 5. Administrari laguntzaileen kidegokoa naiz, eta kidego horretakoa bakarrik, baina administrari orokorraren lanpostu baten titularra naiz edo aspalditik ari naiz lanpostu horretan. Integratu naiteke Administrarien Eskalan?

EZ.

Administrari Laguntzaileen Eskalan automatikoki integratzen da. Ez dago bete dituzun lanpostuen mende, kide zaren kidegoaren mende baizik. Administrari laguntzaile, administrari, laguntzaile tekniko eta mendekoen kidegoetako C taldeko langileak ofizioz integratuko dira.

Integrazioa ez da gora egiteko sistema bat. Baina aukera izango duzu administrari-lanpostuetan emandako zerbitzuak alegatzeko Administrarien Eskalara sartzeko hautaketa-prozesura aurkezten bazara.

## 6. Administrarien kidegokoa naiz, eta kidego horretakoa bakarrik, baina A taldeko teknikarien lanpostu baten titularra naiz edo aspalditik ari naiz horrelako lanpostu batean. Integratu naiteke A taldeko eskala batean?

EZ.

Administrarien Eskalan automatikoki integratzen da. Ez dago bete dituzun lanpostuen mende, kide zaren kidegoaren mende baizik. Administrari laguntzaile, administrari, laguntzaile tekniko eta mendekoen kidegoetako C taldeko langileak ofizioz integratuko dira, 4. galderan jasotako taulekin bat eginez.

Integrazioa ez da gora egiteko sistema bat. Baina aukera izango duzu teknikarien lanpostuan emandako zerbitzuak betetzen ari zaren lanpostua atxikita dagoen A taldeko eskalara sartzeko hautaketa-prozesuan alegatzeko.

## 7. A taldeko kidego batekoa naiz. Nola integratuko gara kidego eta eskala berrietan?

A taldeko kidego/aukera/eskala batekoa bazara, integrazio-proposamen bat jasoko duzu. Proposatutakoa aldatzeko aukera izango duzu Funtzio Publikoko sailburuordearen 2022ko maiatzaren 13ko Ebazpenak araututako prozesuan parte hartuz, betiere hurrengo atalean adierazitakoa aintzat hartuta.

## 8. Nork har dezake parte integrazio-prozeduran?

a) **A taldeko karrerako funtzionarioek**, edozein dela ere haien administrazio-egoera.

- b) 2022ko maiatzaren 12ean jardunean edo antzeko egoeran dauden **A taldeko bitarteko funtzionarioen** izendapena duten langileek, lotura hori mantentzen badute prozesu hau hasten den egunean. Integratu ahal izateko, lanean jarraitu beharko da integrazioaren ondorioetarako egunean.

Ondorio horietarako, antzeko egoeratzat joko ditugu funtzionarioen LPZn lanpostua gordetzea dakarten egoera guztiak, esperientzia zenbatzeko: Seme-alabak eta senitartekoak zaintzeko eszedentzia, izendapena etetea, baimenak hartzea, aldi baterako ezintasuna, ezintasun iraunkorra lanpostuaren erreserbarekin,...

## 9. Zer integrazio-proposamen jasoko dut?

Integrazio-proposamenean nahiz aurkeztzen zaizkizun gainerako aukeretan kontuan hartuko da:

- Eskala berrian sartzeko exijitzen den **titulua** baduzun.
- Destino-eskala **jatorrizko kidegoaren eta aukera edo eskalaren azpitalde berekoa den.**

Funtzio Publikoko Zuzendaritzak integrazio-proposamen bakarra (1.a edo 1.b) bidaliko dizu **Nire karpeta herritarren karpeta, eta jardunean bazaude, baita EIZUn, Enpleguaren atariko Nire Kudeaketak postontzira ere**, irizpide hauek kontuan hartuta:

1.a) Duzun izendapenaren kidego/aukerarekin korrespondentzia duten kidego eta eskala berrietan integratzeko, 7/2021 Legearen eranskinaren arabera, zeina agiri honen 17. atalean erantsi baita.

1. b) Eskala berrien eta duzun izendapenaren kidego/aukeraren artean korrespondentziarik ez badago, esperientzia-denbora gehien egiaztatzen duzun eskalan integratzeko proposatuko zaizu, hurrengo galderan ezarritakoarekin bat etorrita.

Bi eskalatan esperientzia bera baduzu, betetzen ari zaren lanpostuaren edo azkenekoz bete duzun lanpostuaren lehentasunezko eskalan integratzeko proposatuko zaizu, eta, posible ez bada, bigarren mailako eskalan, karrerako funtzionarioa bazara.

Integrazio-proposamenaz gain, emandako zerbitzuengatik integratu ahal izango zinatekeen beste eskalen berri emango zaizu, jaso duzun proposamena aldatu ahal izan dezazun.

**Irizpide guztiak aplikatuta eskala bakar batean soilik integratu bazaitezke, ezingo duzu proposatutakoa aldatu, baina beti izango duzu aukera erreklamazio bat aurkezteko, ados ez bazaude.**

## 10. Zer esperientzia hartuko da kontuan?

Esperientzia da lanpostu bati atxikita benetan emandako zerbitzuak edo antzekoak.

Beste zerbitzu batzuekin batera aldi berean egindako zerbitzuak ez dira inola ere zenbatuko. Horri dagokionez, ez dira zenbatuko egitekoak behin-behinean esleitu direnean emandako zerbitzuak.

Zerbitzu berezietan, izendapena etenda, edo seme-alabak edo senideak zaintzeko eszedentzian emandako aldiak bete duten funtzionario-lanpostuan baloratuko dira. Karrerako funtzionarioa bazara baina jabetzan lanposturik ez baduzu, bete duzun azken lanpostuaren eginkizunen arabera baloratuko zaizu esperientzia.

Betetako lanpostuko lan-esperientzia moduan hartuko dira hauetan igarotako aldiak: prestakuntza edo hobekuntza ikastaroak, euskararen ikaskuntza, norberaren gauzatarako baimenak, aldi baterako ezintasuna edo antzeko egoerak.

## 11. Karrerako funtzionarioa naiz. Alda dezaket Administrazioak egin didan integrazio-proposamena?

Bai, alda dezakezu Administrazioak egindako proposamena eta hauetakoren batean integratu:

- Titular zaren lanpostua adskribatuta dagoen kidego eta eskaletako batean.
- 2022ko maiatzaren 12an betetzen ari zaren lanpostua adskribatuta dagoen kidego eta eskaletako batean.
- 2022ko maiatzaren 12era bitarte, azken hamar urteetan gutxienez bost urteko esperientzia izan duzula egiaztatzen duzun kidego edo eskaletako batean.

Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren proposamena aldatzeko, Enpleguaren Atarian/Jakinan, Integrazio Prozesua atalera sartu behar duzu.

Karrerako funtzionarioa izan baina jardunean ari ez bazara Administrazio honetan, Nire Karpeta atalean jasoko duzu integrazio-proposamena.

Jardunean ez bazaude, proposamena aldatzeko aukera ere izango duzu integrazioari buruzko aplikazioaren bidez; Interneteko helbide honetan duzu aplikazioa: [euskadi.eus/integracion](https://euskadi.eus/integracion)

Gune horretara sartzeko, PIN bat beharko duzu; Funtzio Publikoko Zuzendaritzan eskatu beharko duzu PINa, helbide honetara idatziz: [integración-FP@euskadi.eus](mailto:integración-FP@euskadi.eus); eskaerarekin batera, datu pertsonalak eman, eta PINa zer helbide elektronikotan jaso nahi duzun adierazi beharko duzu.

## 12. Karrerako funtzionarioa naiz. Zenbat kidego/eskalatan integra naiteke?

Karrerako funtzionarioa bazara, dizun izaera horretako loturak adina kidego eta eskalatan integratuko zara, integrazioaren unean jardunean ez bazaude ere.



### 13.Bitarteko funtzionarioa naiz. Alda dezaket Administrazioak egin didan integrazio-proposamena?

Bai, karrerako funtzionarioak bezalaxe, alda dezakezu Administrazioak egindako proposamena, eta hemen integratu:

- 2022ko maiatzaren 12ean betetzen ari zaren lanpostua adskribatuta dagoen kidego edo eskaletako batean.
- 2022ko maiatzaren 12a arte azken hamar urteetan gutxienez bost urteko esperientzia izan duela egiaztatzen duen kidego edo eskaletako batean.

Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren proposamena aldatzeko, prozesura sartu behar duzu Enpleguaren Atariaren/Jakinaren bidez, zeina Funtzio Publikoko sailburuordearen 2022ko maiatzaren 13ko Ebazpenak ematen baitio hasiera.

Prozesuak irauten duen bitartean jardunean ez bazaude ere, Nire karpeta atalean jasoko duzu integrazio-proposamena.

Jardunean ez bazaude, proposamena aldatzeko aukera ere izango duzu integrazioari buruzko aplikazioaren bidez; Interneteko helbide honetan duzu aplikazioa: [euskadi.eus/integracion](https://euskadi.eus/integracion)

Gune horretara sartzeko, PIN bat beharko duzu; Funtzio Publikoko Zuzendaritzan eskatu beharko duzu PINa, helbide honetara idatziz: [integración-FP@euskadi.eus](mailto:integración-FP@euskadi.eus); eskaerarekin batera, datu pertsonalak eman, eta PINa zer helbide elektronikotan jaso nahi duzun adierazi beharko duzu.

### 14.Bitarteko funtzionarioa naiz. Zenbat kidego/eskalatan integra naiteke?

Bitarteko funtzionarioa bazara, kidego/eskala bakarrean integra zaitezke, 2022ko maiatzaren 12ean jardunean edo antzeko egoeran zauden kidegoa/aukera kontuan hartuta.

### 15.Bitarteko funtzionarioa naiz. Nola eragingo dit integrazioak egitekoa den egonkortze EPEan?

EPEan balioetsiko diren emandako zerbitzuak, iraganeko jarduna kontuan hartuta egingo da.

Horretarako, kontuan hartuko da izendapenaren kidegoek/aukerek eta betetako lanpostuen kidegoek/aukerek deitutako eskala berriei atxikitako lanpostuekin korrespondentziarik badagoen edo horien arteko korrespondentziarik badagoen.

Funtzio Publikoko Zuzendaritzak argitaratutako dokumentua kontsulta dezakezu: **OHIKO GALDERAK: INTEGRAZIO-PROZESUA ETA INTEGRAZIO-PROZESUAK ENPLEGUA FINKATZEKO HAUTAKETA-PROZESUETAKO ZERBITZUEN BALORAZIOAREKIN DUEN LOTURA**

## 16. Ez nago ados Funtzio Publikoko Zuzendaritzak eskaintzen dizkidan integrazio-aukerekkin.

Administrazioak eskaini dizkizun integrazio-aukerekkin ados ez bazaude, zer eskalatan integratzea nahi duzun alega dezakezu, Enplegatuaren Atarian/Jakinan eskura dagoen aplikazioaren bidez.

Horretarako, hau adierazi behar duzu:

- Zer eskala dagokizula uste duzun, eta, beraz, **zeinetan integratu nahi duzun**.
- Zergatik sar zaitezkeen (korrespondentziadun kidegoa, esperientzia, titular izatea, egungo jarduna...).

Egiten dituzun alegazioak edozein direla ere, Administrazioak adierazi dizkizun aukeren artetik bat hautatzeko eskatuko zaizu, aurkeztutako erreklamazioa onartzen ez bada ere, proposatutako zer eskalatan sartzea nahi duzun erabaki dezazun.

Egin duzun erreklamazioaren erantzuna integrazio-agindu edo -ebazpenean jakinaraziko zaizu.

## 17. Kidego eta eskala berrietan integratzeko prozesua

2022ko maiatzaren 13ko Ebazpena EHAA-n argitaratzearekin batera hauxe egingo da:

- A taldeko karrerako eta bitarteko funtzionario edo antzeko egoeradun langile guztiei egoitza elektronikoan dagoen **Nire karpeta** atalera eta **Enplegatuaren atariko Nire kudeaketak** postontzira proposamen bat **bidaliko** zaie, zer kidego eta eskalatan integra daitezkeen adierazteko.
- Prozesu bat zabalduko da, eta 10 eguneko epea emango da proposamena onartzeko edo aldatzeko; Enplegatuaren Ataria/Jakina erabiliko da horretarako.

Proposamenarekin batera, aplikazio honetan integratu zaitezkeen kidego eta eskala guztiak kontsultatu ahal izango dituzu.

**Garrantzitsua: Proposamenerako, 2022ko maiatzaren 12ean zenuen egoera hartuko da erreferentzia gisa.**

Proposamenean eta integrazio-aukeretan egiaztatu dituzun eta Enplegatuaren Erregistroan agertzen diren tituluak hartuko dira kontuan.

Tituluak ofizioz egiaztatuko ditu Funtzio Publikoko Zuzendaritzak, prozesu hau hasi aurretik.

Integratu nahi duzun eskala batean sartzeko titulazioren badaukazu erregistratu gabe, betiere eskala hori zure izendapenaren azpitalde berekoa bada, prozesu hau burutzeko ezarritako 10 eguneko epean aurkeztu ahal izango duzu titulazioa.

Horretarako, proposamenari erreklamazioa aurkezteaz gain, kopia bat bidali beharko duzu (konpultsatua edo soila) [integracion-FP@euskadi.eus](mailto:integracion-FP@euskadi.eus) helbidera, eta gero, titulu horren erregistroa izapidetu zure Zerbitzu Zuzendaritzan.

#### I. Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren proposamena

Integrazio-proposamen bat bidaliko dizu Funtzio Publikoko Zuzendaritzak:

- 7/2021 Legearen eranskinaren arabera, izendapenari dagokion kidego/aukerarekin bat datozen kidego eta eskala berrietan integratzeko.
- eskala berrien eta izendapenari dagokion aukera/eskalaren artean korrespondentziarik ez balego, esperientzia gehien egiaztatzen duzun eskalan integratzeko proposatuko zaizu.
- Bi eskalatan esperientzia bera baduzu, betetzen ari zaren lanpostuaren edo azkenekoz bete duzun lanpostuaren lehentasunezko eskalan integratzeko proposatuko zaizu, eta, posible ez bada, bigarren mailako eskalan, jardunean ez zauden karrerako funtzionarioa bazara.

#### II. Kidego eta eskala berrietan integratzeko prozesuaren deialdia

2022ko maiatzaren 13ko Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera 10 eguneko epea irekiko da, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak egindako integrazio-proposamena onartzeko edo aldatzeko.

Epe horretan proposamena aldatzeko eska dezakezu, eta integrazio-baldintzak betetzen dituzun kidego eta eskaletan integratzeko. **Ezarritako epean proposamena aldatzeko eskatzen ez baduzu, proposamena onartu egiten duzula ulertuko da.**

#### III. Bitarteko langileak eta lan-poltsak

Jardunean bazaude, integrazio-proposamen bat jasoko duzu karrerako funtzionarioek bezalaxe. Prozesuan parte hartu, eta hala badagokio, proposamena aldatzeko aukera izango duzu.

Baina kontuan izan, integratu nahi duzun eskala hautatzearekin batera, aldi berean deituko diren lan-poltsak egokitze prozesuan eskala horretako lan-poltsan sartzea ere eskatu beharko duzula. Nolanahi ere, integratzea eskatu duzun eskalari dagokion lan-poltsan sartuko zara. Horretaz gain, beste lan-poltsa batzuetan ere sartzeko aukera izan dezakezu.

**Garrantzitsua:** Jardunean bazaude, baina 2022ko maiatzaren 12aren ondoren izendatu bazaituzte lan-poltsa batetik, ez duzu proposamenik jasoko, eta automatikoki integratuko zara izendapen berriari dagokion kidego/aukerako eskalan. Korrespondentziarik ez balego, izendatua izan zaren lanpostuaren lehentasunezko eskalan integratuko zara.

#### IV. Ebazpena

A taldeko langileentzat azaldutako prozesua amaitutakoan, Administrazio Orokorreko kidego eta eskaletako funtzionario guztiak integratuko dira.

Prozesuan parte hartu baduzu, hautatu duzun eta baldintzak betetzen dituzun kidegoan eta eskalan integratuko zara, eta prozesuan parte hartu behar ez baduzu, automatikoki integratuko zara dagokion kidegoan eta eskalan edo Funtzio Publikoko Zuzendaritzak proposatutakoan.

Karrerako funtzionarioak dagokien kidego eta eskalan integratuko dira Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu bidez. Agindu hori Nire Karpetaaren bidez jakinaraziko da.

Jardunean edo antzeko egoeran dauden bitarteko funtzionarioak dagokien kidegoan eta eskalan sartuko dira, Funtzio Publikoko zuzendariaren ebazpen bidez. Ebazpen hori Nire Karpetaaren bidez jakinaraziko da.

#### **V.- Errekurtsoak**

Integrazio-agindu edo -ebazpenaren aurka, errekurtsoa aurkeztu ahal izango duzu hilabeteko epean, jakinarazten denetik aurrera.

**Errekurtsoa aurkezteko (egoitza elektronikoa), identifikatzeko eta sinadura elektronikorako baliabide bat eduki behar da (BakQ).**

BakQ lortzeko bi modu daude:

- Izenperen Herritarren Ziurtagiria baduzu (txartel berdea, bertaratuta lortua), edo e-NAN bat, online eska dezakezu BakQ [online eskaeren](#) ataletik.
- Online egiteko modurik ez baduzu, aurrez aurreko arretagune batera joan behar duzu, eskatzeko: [BakQ eskatzeko lekuak \(izenpe.eus\)](#).

## **18. Integra naiteke betetzen ari naizen lanpostura gaur egun irekita ez dagoen eskala batean?**

Bai, duzun lanpostua irekita ez dagoen eskala batean integratzeak ez du esan nahiko lanpostutik kenduko zaituztenik baldintzak ez betetzeagatik.

Hala ere, integrazio horrek eragina izan dezake integrazio-prozesua bukatzen denetik finkatze-prozesuaren deialdira bitarte igarotzen den esperientzia-denboran. Funtzio Publikoko Zuzendaritzak argitaratutako dokumentua kontsulta dezakezu: **INTEGRAZIO-PROZESUEI BURUZKO INFORMAZIOA ETA FINKATZEKO HAUTAKETA-PROZESUETAN ESPERIENTZIA BALIOESTERAKOAN PROZESU HORIEK IZANGO DITUZTEN ONDORIOAK**

Halaber, kontuan izan eskala batean integratzeak berekin dakarrela dagokion lan-poltsan sartzea. Lan-poltsak egokitzeko prozesuari buruzko gorabeherak dokumentu honetan kontsulta ditzakezu: **KIDEGOEN ETA ESKALEN LEGE BERRIAREN ONDORIOZ LAN-POLTSAK EGOKITZEKO PROZESUARI BURUZKO OHIKO GALDERAK**

## 19. Nola eragiten die integrazioak zerbitzu-eginkizunen prozesuei?

Zerbitzu-eginkizunei buruzko araudia ez da aldatu Kidegoen legea indarrean sartzearekin. Horrenbestez, prozesu horietan parte hartzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

- Deitutako lanpostua atxikita dagoen eskaletako (lehentasunezkoak edo bigarren mailakoak) karrerako funtzionarioa izatea.
- Azpitalde bereko edo hurrengo beheagoko karrerako funtzionarioa izatea, deitutako lanpostua atxikita dagoen eskaletako batera (lehentasunezkoa edo bigarren mailakoa) sartzeko titulua izanda.
- Deitutako lanpostua atxikita dagoen eskaletako (lehentasunezkoa edo bigarren mailakoa) bitarteko funtzionarioa izatea.

Funtzio Publikoko Zuzendaritzak eskala bakoitzari atxikitako lanpostuak eta eskala bakoitzean sartzeko beharrezkoak diren tituluak kontsultatzeko aplikazio bat jarriko du langileen eskura, eskala jakin batean sartzeak EPEn alegatu dezakezun esperientziari dagokionez nola eragiten dizun jakiteko.

## 20. Zer da lehentasunezko eskala?

Lanpostuen zerrendak, A taldeko lanpostu guztietarako, lehentasunezko eskala bakarra eta bigarren mailako eskala bat edo gehiago finkatzen ditu. Lanpostuak eskala bati baino gehiagori atxikita egon daitezke, baina horietako bakarra izango da lehentasunezkoa.

**Lehentasunezko eskalak adierazten du zer eskalatan eskainiko diren lanpostuak lan-eskaintza publikoetan, eta eskala hori erabiliko da, lehenik eta behin, aldi baterako langileak hautatzeko ere.**

Baina lanpostuak hornitzeko prozesuetan (lehiaketak eta zerbitzu-eginkizunak) lehentasunezko eskala ez zaie lanpostua atxikita dagoen gainerako eskalei gailenduko (bigarren mailakoei).

## 21. Nola kontsulta ditzaket nire egoera partikularrari buruzko zalantzak?

A taldekoa bazara, telefono bidezko hitzordua eskatu ahal izango duzu Funtzio Publikoaren Zuzendaritzan, intraneteko aplikazio honen bidez:

<https://euskadi.eus/hitzordua-aurreko-funtzionamendua-publikoa>

Era berean, langile guztiek honako helbide honetara bidali ahal izango dute kontsulta:

[Integracion-FP@euskadi.eus](mailto:Integracion-FP@euskadi.eus)

Nolanahi ere, erantzun egokia jasotzeko, kontsulta bat aurkezten duen pertsonak honako datu hauek jakinarazi behar ditu: NANa, izen-abizenak, eta intereseko poltsa edo eskala.

## 22.Kidegoen eta eskalen arteko korrespondentziei buruzko eranskina

OTSAILAREN 25EKO 1/2004 LEGEAN ARAUTUTAKO A TALDEKO KIDEGO ETA ESKALEN ETA 7/2021 LEGEAN ARAUTUTAKO A TALDEKO KIDEGO ETA ESKALA BERRIEN ARTEKO KORRESPONDENTZIAK.

1/2004 LEGEA	7/2021 LEGEA
ADMINISTRAZIOKO GOI-MAILAKO KIDEGOA	ADMINISTRAZIOKO GOI-MAILAKO KIDEGOA. ADMINISTRAZIOKO ESKALA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: ARTE EDERRETAKO LIZENTZIA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. KULTURA-ADMINISTRAZIOKO ESKALA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: ZUZENBIDEKO LIZENTZIA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. ESKALA JURIDIKOA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: FARMAZIAKO LIZENTZIA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. FARMAZIAKO ESKALA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: ITSASONTZI-MAKINETAKO LIZENTZIA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. ITSASONTZIETAKO ESKALA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: HISTORIAKO LIZENTZIA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. KULTURA-ADMINISTRAZIOKO ESKALA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: MEDIKUNTZAKO LIZENTZIA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. MEDIKUNTZAKO ESKALA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: NAUTIKAKO ETA ITSAS GARRAIOKO LIZENTZIA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. ITSASONTZIETAKO ESKALA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: ALBAITARITZAKO LIZENTZIA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. ALBAITARITZAKO ESKALA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: ARKITEKTURA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. ERAIKINGINTZA, HIRIGINTZA ETA LURRALDE- ANTOLAMENDUKO ESKALA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: NEKAZARITZA INGENIARITZA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. NEKAZARITZA- ETA ABELTZAINZTA-SEKTOREKO ESKALA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: BIDE, UBIDE ETA PORTUEN INGENIARITZA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. AZPIEGITURETAKO ESKALA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: INDUSTRIA-INGENIARITZA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. INDUSTRIAKO ESKALA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: MEATZE-INGENIARITZA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. MEATZEETAKO ESKALA

GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: MENDI-INGENIARITZA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. NEKAZARITZA- ETA ABELTZAINITZA-SEKTOREKO ESKALA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: ONTZIGINTZAKO ETA OZEANOKO INGENIARITZA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. ITSASONTZIENTAKO ESKALA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: TELEKOMUNIKAZIO-INGENIARITZA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. TELEKOMUNIKAZIOETAKO ESKALA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIETAKO LIZENTZIA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. KIROLETAKO ESKALA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. ESKALA: ARTXIBOAK, LIBURUTEGIAK ETA DOKUMENTAZIOA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIOKO ESKALA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. ESKALA: INFORMAZIOAREN SISTEMAK ETA TEKNOLOGIAK	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. INFORMAZIO-SISTEMETAKO ESKALA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. ESKALA: ITZULPENAK	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. ITZULPENGINTZAKO ESKALA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. ESKALA: HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. HIZKUNTZA NORMALIZAZIOKO ESKALA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. ESKALA: ESTADISTIKA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. ESTADISTIKAKO ETA DATU-ANALISIEETAKO ESKALA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: GEODESIA- ETA KARTOGRAFIA-INGENIARITZA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. KARTOGRAFIKO ESKALA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAKO LIZENTZIA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. EKONOMIA ETA ENPRESAKO ESKALA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: AKTUARIOTZA- ETA FINANTZA-ZIENTZIEETAKO LIZENTZIA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. EKONOMIA ETA ENPRESAKO ESKALA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. ESKALA: EPIDEMIOLOGIA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. OSASUN PUBLIKOKO ETA EPIDEMIOLOGIAKO ESKALA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. ESKALA: LABORATEGIA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA LABORATEGIKO ESKALA
FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. ESKALA: OSASUN PUBLIKOA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. OSASUN PUBLIKOKO ETA EPIDEMIOLOGIAKO ESKALA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. PRENTSA ETA ARGITALPENETAKO ESKALA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: KAZETARITZAKO LIZENTZIA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. PRENTSA ETA ARGITALPENETAKO ESKALA

GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: PUBLIZITATEKO ETA HARREMAN PUBLIKOETAKO LIZENTZIA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. PRENTSA ETA ARGITALPENETAKO ESKALA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: EKONOMIAKO LIZENTZIA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. EKONOMIA ETA ENPRESAKO ESKALA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: ARTEAREN HISTORIA	FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. KULTURA-ADMINISTRAZIOKO ESKALA
ADMINISTRAZIO-KUDEAKETAKO KIDEGOA	ADMINISTRAZIO-KUDEAKETAKO KIDEGOA ADMINISTRAZIO-KUDEAKETAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: ENPRESA-ZIENTZIETAKO DIPLOMA	KIDEGOA TEKNIKOA. EKONOMIA ETA ENPRESAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: ARKITEKTURA TEKNIKOA	KIDEGO TEKNIKOA. ERAIKINGINTZA, HIRIGINTZA ETA LURRALDE-ANTOLAMENDUKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: ERIZAINZAKO DIPLOMA	KIDEGO TEKNIKOA. ERIZAINZAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. ESKALA: INFORMAZIOAREN SISTEMA ETA TEKNOLOGIAK	KIDEGO TEKNIKOA. INFORMAZIO-SISTEMETAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. ESKALA: ITZULPENA	KIDEGO TEKNIKOA. ITZULPENGINTZAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. ESKALA: HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA	KIDEGO TEKNIKOA. HIZKUNTZA NORMAIZAZIOKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. ESKALA: ESTADISTIKA	KIDEGO TEKNIKOA. ESTADISTIKAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: INDUSTRIA-INGENIARITZA TEKNIKOA, INDUSTRIA-KIMIKA ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA. INDUSTRIAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: NEKAZARITZA-INGENIARITZA TEKNIKOA, NEKAZARITZA- ETA ABELTZAINZTA-USTIATEGIAK ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA. NEKAZARITZA- ETA ABELTZAINZTA-SEKTOREKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: INDUSTRIA-INGENIARITZA TEKNIKOA, ELEKTRIZITATEA ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA. INDUSTRIAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: INDUSTRIA-INGENIARITZA TEKNIKOA, INDUSTRIA ELEKTRONIKA ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA. INDUSTRIAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: INDUSTRIA-INGENIARITZA TEKNIKOA, MEKANIKA ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA. INDUSTRIAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. GESTIOAREN INFORMATIKAKO INGENIARITZA TEKNIKOA	KIDEGO TEKNIKOA. INFORMAZIO-SISTEMETAKO ESKALA



ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: NEKAZARITZA-INGENIARITZA TEKNIKOA, NEKAZARITZA- ETA ELIKAGAI-INDUSTRIAK ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA. NEKAZARITZA- ETA ABELTZAINZA-SEKTOREKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: NEKAZARITZA-INGENIARITZA TEKNIKOA, BARATZEZAINZA ETA LOREZAINZA ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA. NEKAZARITZA- ETA ABELTZAINZA-SEKTOREKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: NEKAZARITZAKO INGENIARITZA TEKNIKOA, MEKANIZAZIOA ETA LANDA-ERAIKUNTZAK ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA. AZPIEGITURETAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: HERRI-LANETAKO INGENIARITZA TEKNIKOA, ERAIKUNTZA ZIBILAK ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA. AZPIEGITURETAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: HERRI-LANETAKO INGENIARITZA TEKNIKOA, HIDROLOGIA ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA. AZPIEGITURETAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: HERRI-LANETAKO INGENIARITZA TEKNIKOA, HIRI- GARRAIO ETA -ZERBITZUAK ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA. AZPIEGITURETAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: INDUSTRIA-INGENIARITZA TEKNIKOA, EHUNGINTZA ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA. INDUSTRIAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: MEATZEETAKO INGENIARITZA TEKNIKOA, MEATZEEN USTIAKUNTZA ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA. MEATZEETAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: MEATZEETAKO INGENIARITZA TEKNIKOA, MEATZEETAKO INSTALAZIO ELEKTROMEKANIKOAK ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA. MEATZEETAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: MEATZEETAKO INGENIARITZA TEKNIKOA, MINERALURGIA ETA METALURGIA ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA. MEATZEETAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: MEATZEETAKO INGENIARITZA TEKNIKOA, BALIABIDE ENERGETIKOAK, ERREGAIK ETA LEHERGAIK ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA. MEATZEETAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: MEATZEETAKO INGENIARITZA TEKNIKOA, MEATZEETAKO ZUNDAKETAK ETA PROSPEKZIOAK ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA. MEATZEETAKO ESKALA

ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOIA. AUKERA: BASOGINTZAKO INGENIARITZA TEKNIKOA, BASOGINTZA-INDUSTRIAK ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA. NEKAZARITZA- ETA ABELTZAINZA-SEKTOREKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOIA. AUKERA: BASOGINTZAKO INGENIARITZA TEKNIKOA, BASO- USTIAPENAK ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA. NEKAZARITZA- ETA ABELTZAINZA-SEKTOREKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOIA. AUKERA: TELEKOMUNIKAZIO-INGENIARITZA TEKNIKOA, SISTEMA ELEKTRONIKOAK ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA. TELEKOMUNIKAZIOETAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOIA. AUKERA: TELEKOMUNIKAZIO-INGENIARITZA TEKNIKOA, TELEKOMUNIKAZIO-SISTEMAK ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA. TELEKOMUNIKAZIOETAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOIA. AUKERA: TELEKOMUNIKAZIO-INGENIARITZA TEKNIKOA, SOINUA ETA IRUDIA ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA. TELEKOMUNIKAZIOETAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOIA. AUKERA: TELEKOMUNIKAZIO-INGENIARITZA TEKNIKOA, TELEMATIKA ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA. TELEKOMUNIKAZIOETAKO ESKALA